



**Diskriminaziorik
gabeko
eskola inklusibo
LGTBI taldearekiko**



Junio de 2014

1.- Hezkidetzaren beharra.

Historiak ongi erakutsi digu legeetan emaniko aldaketak eta onarpen juridikoak ez direla nahikoak izan benetako berdintasuneko bidean.

Genero berdintasuna ez zen erdietsi lege aldaketen bitartez, eta, zoritxarrez, gaur egun jarrera eta ohitura matxistak mantentzen dira. Era berean, aniztasun sexualaren onarpena, bai eta bestelako orientazio sexuala duten pertsonetikiko berdintasun tratua bera ere, ez da lortu azken urteotan legeetan eman diren aldaken bitartez. Legeen aldaketarekin batera balore eta jarrera aldaketa behar da izan, eta helburu honi heltzeko ezinbestekoa dugu hezkuntza.

Gero eta beharrezkoagoa da gure eskoletan lantzea gai etikoak eta bizikidetzarekin zerikusirik dutenak, ez arlo isolatu batean, modu transbertsalean baizik, eta honela modu eraginkorrean lortuko dugu bizikidetzaren inguruan sortzen diren arazoei aurre egitea.

Elkarrizketa giroa sortu behar du eskolak, norberaren garapenean lagundu behar du; genero aniztasuna ez ezik, aniztasun afektibo-sexual guztiak ezagutarazi ere egin behar ditu, aniztasun hori onartuz eta baloratuz. Enpatia landu behar da, batak besteren animoarekin zerikusi duen identifikazio mental gisa ulertuta. Hala ere, oso hedatuta dago ikastetxeetan ikasle guztiak berdintasunean tratatzen dugun ustea, pertsonen sexuaren arabera inolako ezberdintasunik egiten ez dugun ustea, eta hau ez da beti honela.

2.- Hezkidetzaren aldeko apustua sindikalgintzatik.

Urte luzeak daramatza STEE-EILAS sindikatuak hezkidetzaren aldeko apustua egiten, eta azken urteotan gero eta irmoagoa izan da apustu hau. Sindikatuan bertan zehazturiko helburuak lortzeaz Emakumeraren Idazkaritza arduratu da, eta urtero hainbat material didaktiko sortzen du Azaroaren 25erako, Martxoaren 8rako, eta azken urteotan Ekainaren 28aren inguruan. Material didaktiko hau afiliazio osoari bidaltzen zaio, bai eta Hego Euskal Herriko ikastetxeetara ere, urteko aldarrikapena jasotzen duten afixarekin batera. Onarpen handia du ikastetxeetan, eta sistematikoki erabiltzen da. Horretaz gain, formazio saioak antolatzen ditugu eta hainbat koordinakunde eta plataforma feministatan hartzen dugu parte.

Hainbat txosten agertu dira azken urteotan Bigarren Hezkuntzan aniztasun afektibo-sexualak gure eskoletan bizi duen egoera islatuz, Eusko Autonomi Erkidegoan zein Estatu mailan, eta guztietan honelakoa islatu da: bullying-ak, neurri handi batean generoarekin du zerikusia eta sexista da.

Ikastetxeetara igorri dugun materialetan harreman afektibo sexuala landu izan dugu, baina orain dela hiru urte pausu bat haratago ematea erabaki genuen, eta LGTB ikasleek bizi duten diskriminazioari aurre egiteko material propioa prestatzen hasi ginen, hezkuntza sisteman horiekiko tratu txarrak antzematen baitira. Materialak oso harrera ona izan du ikastetxeetan.

Gauzak honela, LGTBI taldekideek hezkuntza sisteman bizi duten egoerak berriazko lanketa behar duela ikusi dugu. Horretarako lan taldea sortu dugu sindikatuaren barruan.

Talde hau sortzeren helburuak hauek dira: LGTB kideen bisibilizazio handiagoa lortzea sindikalgintzan, sindikatukideentzat formazio saioak prestatzeko, berariazko materialak prestatzeko, prentsa artikulak... Bide honetan eragile bihurtu nahi dugu, eta hezkuntzako gainontzeko eragileekin dugun harremanez baliatuko gara lan komuna egiteko, hezkuntza eragile guztion elkarlana ezinbestekoa baita.

3.- ESANGO DIOZU? Unitate didaktikoaren aurkezpena.

Ekainaren hasieran ikastetxeetara igorri dugun unitatearen helburu nagusia da norberaren pentsamoldeaz hausnartzea eta bazterkeriak edo jazarpenak izan ditzakeen ondorio larriez ohartzea, laguntza eskatzeko edo emateko bideak aztertzeko. Horretarako hainbat egoera aurkezten dira, eta sufritzen ari den pertsonari nola lagundu aztertzen da, bai eta laguntza eskatzeko bideak ere. Ikasleei pertsonen arteko harreman anitzak aurkezten zaizkie, orientazio sexual guztiez hitz egiteko aukera ematen zaie, edozein bazterkeriarik baztertzeke, enpatia eta ikasleen sendotze pertsonala landuz.



4.- Gure Hezkuntza Sistemaren radiografia.

Azken urteotan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aniztasun afektibo sexualak bizi duen hainbat txosten eta ikerketa agertu dira EAEn, Estatuan eta Europan. Jazarpen homofobikoaren inguruko txostenek ondorio larriak agertu dituzte LGTB ikasleekiko eskola jazarpen eta suizidio arriskua aztertu direnetan.

Bullying homofobikoaren tamaina ez dugu ezagutzen. Eskuardean darabilzkgigun datuen arabera ikasleen %30-%40k noizbait izan du harremanik tratu txarren kasuren batean, erasotzaile edo erasotu moduan. Gutxi gorabeherako datu hauen gainean honako jakin behar genuke: zenbatek du erlaziorik homofobia eta sexismoarekin?

Homofobiagatiko bullying-ak berariazko hainbat ezaugarri ditu:

- homosexualitatearen eta transexualitatearen inbisibilizazioa hezkuntza sisteman.
- Estigmaren kutsatze arriskua, ez soilik lesbiana, gai, transexual eta bisexualentzat, bai eta laguntzen dutenentzat ere.
- homofobiaren normalizazioa, norberaren izaera modu negatiboan bizi izanik.

Ikasleen arteko bortizkeria hezkuntzako kide guztiendako kaltegarria eta suntsitzailea da. Bortizkeriara jotzen dutenenei inpunitatea duten ustea sortzen zaielako. Biktimei kalte handia sortzen die beren nortasunaren garapenean. Gainontzeko ikasleei ere kalte handia egiten die, beldur giroan sozializatzen baitira, eta indartsunak bere legeak ezartzeko aukera duela sinisten baitute. Honelako giroak irakasleei kalte handia egiten die eguneroko jardunean behar bezalako giro lasaia eta egokia ez baitago, eta honek gogogabetzera daramatza.

5.- Eusko Jaurlaritza eta Nafar Gobernuaren jarreran.

Positibo baloratzen ditugu Eusko Jaurlaritzak eman dituen pausuak hezkuntza sistemaren radiografia egokia izateko Irakas Sistema ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen bitartez, eta behin hori izanda plangintza zehazta burutzeko, eta behar bezalako formazioa eskaintzeko irakasleei Berritzeguneen bitartez. Eskola segurua proiektua eta Arartekok hartu duen ardura bera ere bide egokiak dira.

Irakas Sistema ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak Araba, Gipuzkoa eta Bizkarian berdinen arteko bortizkeriak duen tamainaren inguruko txostena agertu zuen orain gutxi, eta egoera kezagarri hau definitzeko abiapuntu egokia zehaztu zuen: berdinen arteko tratu txarrek biktimen eskubideak urratzen dituzte, eta bereziki, euren osotasun fisiko eta psikikoa. Ez da, beraz, kontu pribatua da, hezkuntza kontua da, kontu publikoa da.

Beste muturrean dugu Nafar Gobernuaren jarrera. Erantzukizun eza agertzen du, ez baitu inolako interesik agertu LGTB ikasleek eta aniztasun sexualak eskoletan bizi duten egoera aztertzeko eta bazterkeria kasuak ekiditeko. Ikasleek eskubidea dute formazio integrala izateko, eta Nafarroako Gobernuak ez du bere gain hartzen ardura hau bere gain hartzen.

Hezkuntza sistemak buru-belarri egin behar du lan generoagatiko edozein bortizkeria baztertzeko, baina zoritzarrez Ppren Gobernuak LOMCE inposatu nahi digu. Lege honetan Hiritartasunerako Arloa ezabatu du derrigorrezko curriculumetik, eta horrekin batera gizon eta emakumeen arteko berdintasun aipuak, homofobia, lesbofobia, bifobia, transfobia...

6.- Ekainak 28. Askatasun Sexualaren Aldeko Nazioarteko Eguna

Gure herri eta herrietan horren alde egiten diren mobilizazio guztiekin bat egiten dugu. Geuk ere parte hartu nahi dugu Askatasun Sexualaren Aldeko Egunean. LGTB harrotasun eguna deitua izan den honen alde.